

## MERKATARIAK

ADELA GARTEIZ arropa dendea, AINHOA oinetakoak, AIZU aldizkariak, ALKAR jolasak eta kirolak, ALLUNTIZ burdindendea, AMILOTX liburu dendea, ANNE oinetakoak, ARES opildegia, ARGIBIDE elektrizidadea, ARIEN optikea, ARRONATEGI pinturak, ARTEIXE argi dendea, ATXIKE ehiza eta arrantzea, BALART arropa dendea, BARAIAZARRA musika dendea, BAREÑO jantzi dendea, BATZOKIA jatebidea, BAZAR TXIKIA bazarra, BED'S koltxoak, BEGO ETA NEREA lurrindegia, BEREZI liburu dendea, BIDAGUREN gozotegia, BIKANA altzariak, BILBAO aseguroak, BOLINA jatebidea, BONILLA argazki dendea, BRONCEARIUM estetika zentroa, DECOREV dekorazioa, DESMAYO SURF arropa dendea, DIONISIA arropa dendea, DOMINGEZ farmazia, DONIBANE albaitaritza, DUKA arropa dendea, DUSI lentzeria, EL CASERIO jatebidea, EGUREN optika dendea, EROSKI bidaiak, ETXABE kirol dendea, ETXKO makailoak, FERMIN zapata dendea, F-2 zapata dendea, GAROA konplimentuak, GAUBEKA liburu dendea, GERNI GARDEN lorak eta animaliak, GERNIKA ortopedia, GERNIKA Zerraildegia, GIZON arropa dendea, GLOSS arropa dendea, GORA BERA apainketa, GOTZONE umeentzako dendea, GUREA altzari dendea, IBAIALDE tapiz dendea, ILARGI dekorazioa, INTER SPORT EXTREME, IRAZABAL burdin dendea, IZAGA uleapaindegia, IZASKUN harategia, IZASKUN EGURROLA uleapaindegia, JABIER harategia, JESUS MARI harategia, JM bideo kluba, JOSTEN umeentzako arropa, JOSU jatebidea, JUANITA MUGARTEGI mertzeria, KILKILI opari dendea, KIPU kirol dendea, KOPILASTER kopistegia, KOPIKOLOR kopistegia, KORTEZUBIKE jolasak, KOTOI mertzeria, LAGUN elektratresnak, LAGUN ON albaitaritza, LEIDE jostailu dendea, LOIOLENE fruta dendea, LOREDER pharafarmazia, LOURDES fruta dendea, LUMIERE uleapaindegia, MABE poltsa dendea, MADARIAGA hartz klinika, MARI SOL fruta dendea, MARI TERE okindegia, MARIA LUISA lurrindegia, MARIAN uleapaindegia, MAXI EROSKI, MENDI KIROLAK, MIKEL altzariak, NAIA arropa dendea, NERE KABIA taberna eta jatebidea, OGOÑO arrandegia, OIHANA zapata dendea, OJANGUREN elektratresnak, OLGA umeentzako arropa, OMAETXEBARRIA farmazia, OMAGO dastalekua, OMAGO dietetikea, OMAGO kafetegia, PARAPHERNALIA jantzi dendea, PEDRO BILBAO gozotegia, PEPI urdaitegia, PODIUM garaikurrak, QUOKKA arropa eta oinetakoak, SAN JUAN loteria, SANDALIO harategia SARASPE opil okindegia, TAOS arropa dendea, TODO DESDE 100 bazarra, TOTORIKAGUENA jantzi dendea, TRENBIDE arropa dendea, TXANKAN arropa dendea, UGALDE ortopedia, UMEAK umeentzako guztia, URANGA uleapaindegia, URDAIBAI artekaritza, USKOLA baserri tresnak, VIT-SEC tindategia, ZALLO harategia, ZALLO BARRI jatebidea, ZARRA prentsa-aldizkariak, ZUBIALDE okindegia, ZUGATZA eskaratzeko altzariak, ZURICH aseguroak.

## ENPRESAK

ABAUNZA Aholkularia, AITA VILLASANTE Udal Euskaltegia, AKELARRE Ostataua, ALGELEK SL, AREZA erakuntzak, ARGÍ OLA Elektrizitate, ARRONATEGI Pinturak, ARROYO Banaketak, BENGOSARRA Eraikuntza Metalikoak, BUSTURIALDEKO IRRATI TELEBISTA SL, CASMARCO SL, COR SL Aholkularia, DISBARAN Banaketak, EXCLUSIVAS GERNIKA, ILLUNZAR, GERNIKA GARBIKETAK SL, GERNIKA INMOBILIARIA, GERNIKA KIROLEKUA, GONDRA ABAROA Aseguroak, GORRA Bulkanizatuak, INTXAUSTI SA Eraikuntzak, IRAZABAL Ardautegia, IZAGIRRE Eraikuntzak SA, JOSE LUIS Kristaldegia, MACÍAS Inmobiliaria, MALLUKIZA Aroztegia, NAGER Arostezia, SAN ISIDRO KOOPERATIBA, SANJO INOX Tailerra, SENDAGAI Osasun Zentrua, SERESNOR, SORKUNDE Finka Administrazioa, SORTALDE Energia Alternatiboak, TALLERES SANJO tailerra, ZAUNKA produkzioak.

## ALKARTEAK

AGIRI ALKARTEA, AIURI, ALARGUNEN ALKARTEA, ANDRA MARI KORALA, ARKUPE PILOTA TALDEA, ARRANO KULTUR ALKARTEA, AINCOC, AVIFES, BAKE LEKU, BAKEAREN ARBOLA, BARRUTIALDE ANTZERKI TALDEA, BUSTURIALDEAN EUSKARAZ, EHIZTARI, ARRANTZALE ETA TIRATZAILA ALKARTEA, ELAI ALAI DANTZARI TALDEA, ELIZBARRUTIKO KARITAS, EMAKIDE, ETSIAK MAHAITENIS TALDEA, GERNIKAKO EMAKUME ALKARTEA, GAUDEAMUS KORALA, GAZTEAK KULTUR TALDEA, GERNIKA FUTBOL SALA, GERNIKA OFF ROAD, GERNIKA RACING ALKARTEA, GERNIKA SASKI BALOI ALKARTEA, GERNIKA SPORTING FUTBOL TALDEA, GERNIKA-LUMOKO MERKATARI ALKARTUAK, GERNIKAKO ARKU-TIROKETA ALKARTEA, GERNIKAKO ARTE ESKOLA, GERNIKAKO BERTSOLARI ESKOLA, GERNIKAKO EKOLOGI LAN TALDEA, GERNIKA GOGORATUZ, GERNIKAKO RUGBY TALDEA, GERNIKATIK MUNDURA, GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEA, GOIZALE, GOIZEKO IZARRA GAZTE TALDEA, HILARGI LORE, IDEA-SUR, IEUP GAZTEEN ALKARTEA, JAI ALAI, KOSNOAGA GAZTE TALDEA, KOSNOAGA IGERIKETA TALDEA, MAKATZ ITURRI TALDEA, MAKAZAGA MUSIKA ALKARTEA, MUSIKEDER, ODOLKIDEAK, OSTARGI ABESBATZA, S.D. GERNIKA KLUBA, SOCIEDAD CICLISTA GERNIKESA, TURDAIBAI, TIRIS GERNIKA SAHARAREN ALDE, URDAIBAIO PERRETIXIKOZALEAK ALKARTEA, URDAIBAIO RUGBY ESKOLA, URDAIBIKERS MOTORZALEEN ALKARTEA, ZANTZOA EUSKAL KULTUR ALKARTEA.

## ZENBAT JATORRI HAINBAT KULTURA

### IÑAKI GOITIA

### Gernika Gogoratuz-eko kidea

Gernika Gogoratuz orain dala 20 urte Gernika-Lumon sortutako Bakearen aldeko Ikerketa Zentroa da. Gure lanak bokazino lokal garrantzitsua dauka baina globala be bai. Gure lan-taldea kultura anitza da (Alemania; Bangladesh; Euskal Herria; Kolonia...) eta lan-hizkuntzak anitzak, besteak beste, euskera, gaztelania, ingelesa, alemaniera eta frantsesa.

Une honetan lan-taldean lau euskaldun-zahar, lau euskaldun-barri eta erdalun bi gagoz. Gure praktika programaren barruan eta proiektu konkretuetan mundu osoko pertsonak be eukiten doguz azken urteotan: Alemania, Argentina, Errusia, Estatu Batuak, Irlanda, Kolonia, Txile... Aniztasun hau gure proiektuen kolaboratzaileengan eta antolatzen doguzan ekintzetako (jardunaldiak, ikastaroak...) parte-hartzaileengan be nabaria da. Jatorriak anitzak eta kulturak eta hizkuntzak be bai.

Guzti honek aberastasun handia ekarri deutso taldeari eta euskerearen aldetik erronkak be bai. Gernika Gogoratuz alkarte euskalduna da eta erakundetik euskerearen aldeko apustu garbia egin dogu, ahaztu barik prozesua luzea eta konplexua dala. Euskerearen presentzia lehenesten saiatzen gara gure barne eta kanpo komunikazioan, baliabide ekonomikoek eta pertsonalek hori ahalbidetzen deuskuen heinean. Bide honetan oso lagungarria da Gernika Gogoratuzentzat Gernika-Lumoko Udalak eskeinitako laguntza teknikoa, besteak beste, euskerearen normalizazioaren planifikazioan; hizkuntz helburuak eta hizkuntz irizpideak jartzerakoan; eta itzulpen eta zuzenketetan.



## UMOREA



# geure berbie euskera z

Erredakzioa eta maketazioa: ARTEZ Euskara Zerbitzua

Argitaratzailea: Gernika-Lumoko Udala



## KIROLA EUSKERAZ

Kirol Patronatuak eta Euskera Zerbitzuak *Kirola Euskeraz* kanpaina martxan jarri dabe, kirol ekintzetan euskerea bultzatzeko, bai kantidadean bai kalidadean.

Orain arte hitzarmena sinatuta daukien kirol alkarteak euren hizkuntz egoera aztertu eta urteko helburuak jarten izan doguz. Kanpora begira egiten daben komunikazioa landu da batik-bat, besteak beste, kartelak, gurasoentzako gutunak, eta web orriak. Aitatutako helburuen jarraipena alkarte bakoitzeko zuzendaritzako kide batez egiten izan da.

Halandabe, ezagutza eta erabilerearen artean alde handia dago. Oro har, %80k euskeraz badaki, kanpora begira egiten diran komunikazioen %72 euskeraz edo ele bietan egiten da, baina alkarte barruko idatzizko komunikazioak zein ahozkoak makalak dira, %52 egiten da euskeraz.

Hori ikusita, Gernika-Lumoko Udaleko Euskera Zerbitzuak eta Kirol Patronatuak *Kirola Euskeraz* kanpaina martxan jarri dabe. Kanpaina horren bidez, kirol alkarteetako kideen artean euskerearen gaineko kontzientziazioa handitu, euskeraz berba egiteak daukan garrantzia ohartarazi, hizkera hobetu, eta gure hizkuntza kirol arloan guztiz normalizatu gura da. Kanpaina herriko kirol alkarte guztientzako da, hau da, hitzarmena sinatuta daukientzako zein orain arte konpromisorik hartu ez dabenentzako. Ganera, Udalak parte hartze zuzena bultzatu dau hau guztia aurrera eramateko.



2007 urtea  
13. zk.

### Bardinean euskalduna

Aurton behargin euskaldunen kontratazioak gora egin dau merkatarien artean. Enpresa txikien arloan aurrerapen nabarmenak egin dira. Kontratazioetan behargin euskaldun gehiago egoteak, hitzarmenkiek euskereari garrantzia emoten deutseela erakusten deusku. Horrenbestez, gero eta enpresa gehiagotan daukagu bermatuta zerbitzua euskeraz jasotea. Orain geure txandea da, enpresa eta merkatoriengana euskeraz zuzendu behar dogu.

### Hitzarmenkie barriak

2007an 8 saltokik, 3 enpresa eta 6 alkartek sinatu dabez euskerearen aldeko konpromisoak, honako honek izan dira kanpaina parte hartzea erabagi dabenak: Anne oinetakoak, Javier harategia, Fermin oinetakoak, Jesus Mari harategia, Zapatak-F2, Lourdes fruta dendea, Izaskun harategia, Mari Sol fruta dendea, eta Ogoño arrandegia; Areza, Gernika Kirolekua eta Seresnor; Asincoc, Etsaiak, Turdaibai, Gernika Gogoratuz, Jai Alai, eta Kosnoaga.





## Gernika Garbiketak, SL

Gernika Garbiketak enpresa 2007rako jarritako helburuak beteteko fin dabil beharrean. Aurten enpresako Poltsiko Hiztegia sortu dabe eta honakoak sartu dira: egunero erabilten diran euskerazko berbak, garbiketa tresna eta makinaren izenak euskeraz, ohiko esaldiak, eta abar. Terminologia atalka banandu da eta erroa, tresna eta makinei jagokezan irudiak be txertatu dira; izan be, makina bereziak erabilten dabezanez, euskerazko izenak ikasteaz ganera enpresako tresneria ezagutzeko be baliagarria izango da Poltsiko Hiztegia.

Hiztegia ezagutzeko, eta erabilteko ohiturea hartzeko prestakuntzea jaso dabe Aixerrota Garbilekuko eta Gernika Garbiketako behargin guztiek. Horrezaz ganera, beste hainbat ekintza burutu dira enpresako hizkuntza erabilera areagotzeko.

## Construyendo el camino hacia la normalización

Son varias las empresas que trabajan en el sector de la construcción en Gernika-Lumo, y cada vez son más las que han decidido trabajar en euskera.

Actualmente, INTXAUSTI y AREZA se han comprometido con la normalización del euskera. La primera empresa lleva varios años dentro de la campaña "Geurie Berbie Euskeraz" y podemos decir que la situación lingüística en la misma es positiva.

Por su parte, AREZA acaba de entrar en la campaña, pero también ha procurado hacerle un hueco al euskera hasta ahora, ya que ha tenido en cuenta el criterio lingüístico en la contratación y casi todos los trabajadores son bilingües, la publicidad la realiza en los dos idiomas y cualquiera que les llame escuchará la primera palabra en euskera.



## Busturialdeko Irrati Telebista, SL

Busturialdeko Irrati Telebistan aurten hasi dabe Euskera Plana, eta hainbat dira hartutako helburuak. Horreetako asko bete dabez dagoaneko, besteen artean, nominak euskeraz emoten deutseez beharginei, aurrekontuak ele bietan egiten dabez, eta barruko errotulazino guztia ele bietan jarri dabe. Aitautako helburuok burutzeko hainbat ekintza egiten dabilz.

Orain, enpresako hizkuntz irizpideak zehaztea jagoke, bai ahozkoak bai idatzizkoak, eta urte amaierarako prest eukiteko gogor ekin deutsee.

## Saiheskia, oilasko izterra, zapoa, sagarrak...

Gernika-Lumoko Udalak saltokietan euskera bultzatzeko asmoagaz, fruta denda, harategi eta arrandegietan produktuen irudi eta izenez osatutako kartelak banandu dauz. Kartelak Din A3 neurrikoak dira, eta saltokian euskerazko izenak erabilteko egin da zabalkundea.

Aitatutako kartelak herriko dendari guztiei emon jakez, hau da, *Geure Berbie Euskeraz* kanpainan sartuta dagozanei, zein oraindino hitzarmena sinatu barik daukienei. Oro har, harrera ona egin deusie saltzaileek euskarri barriari eta leku gehienetan ikusgai dagoz.

Izena produktu bakotxaren irudiagaz lagunduta dagoanez, ele bakarrean jarrea erabagi da.

Horrezaz ganera, hitzarmenkiek hainbat kartel eta errotulu eskatu dabez. Dendariak merkealdian jarten dabez kartel gehien, baina hainbat dira urte osoan zehar eskeintza bereziak eukiten dabezanak be. Urtez urte kontsumitzailearen hizkuntz eskubideak bermatzen ahalegintzen diran merkataria kopurua handituz doa.

Bestalde, erosketak egiten doguzanean, sarritan, zerrendea egiten dogu, eta produktuen euskal-izenak ez dakiguzanean gaztelaniazkoak erabilten doguz. *Geure Berbie Euskeraz* kanpainak horretan be arretea ipini dau, eta erosketa zerrendea euskeraz egiteko lagungarria izango da materiala sortu dau.

"Erosi Euskeraz" izeneko erosketa liburutxua bananduko da, fruta denda, harategi, eta arrandegietan bereziki. Saltzaileek euren bezeroen artean banandu dagien.



## Campaña para las asociaciones deportivas

El Patronato de Deportes y el Servicio de Euskera han lanzado la campaña *Kirola Euskeraz*, con el fin de fomentar el uso del euskera en las actividades deportivas, tanto en cantidad, como en calidad.

Mediante ésta campaña se pretende aumentar la conciencia sobre el uso del euskera entre los miembros de las asociaciones deportivas, mejorar su uso, así como la normalización total de la lengua en el ámbito del deporte. El Ayuntamiento fomenta la participación directa para conseguir dicho objetivo.

## Zabaldutako atek euskerari

*Geure Berbie Euskeraz* kanpaineagaz, gure eguneroko hartu-emonetan euskera ahoz gero eta gehiago erabiltea lortu nahi da, eta idatziz be erabilera handitu errotuluetan, inprimaki estandarretan, publizidadean edo bestelako euskarrietan.



Akordio baten bitartez, saltokiak bere komunikazioetan euskerearen presentzia handitzeko konpromisoa hartzen dau eta Udalak, bere aldetik, saltokiek helburu hori lortu dagien beharrezkoa dan laguntza tekniko doanik emoten dau.

Honako laguntzak eskeintzen deutsez Udalak saltoki, enpresa eta alkarteei euren konpromisoen truke: itzulpenak, errotuluak, inprimaki, txartel, kautxu-zigilu eta bestelako idazkien euskerazko ereduak eta euskeraz beteten laguntzeko eredu eskeintza; euskera eskolara joateko diru-laguntzak, urte osoko aholkularitza zerbitzua telefonoz zein e-mailez, eta aurrez aurreko zerbitzua martitzenetan Kultur Etxean.

Anima zaitez, eta hartu zure konpromisoak! Informazino gehiago gura badozu:

Tel.: 946 257 090 / 944 480 000  
E-maila: eastorkia@artez.net

